

ALKATE JAUNARI EDO BERE ORDEZ DAGOKION UDALETXE BATZORDERI

Arazoa: Altzan kokaturik dagoen txakurtegia (Villa Lolita)

Jaun agurgarria(k):

Ezta gaur aurreneko aldiz eta bakarra, gai honi buruz zerbait entzuten duzuela. Uste dut orain dela urte pare bat edo, gai honek, bere unerik higituena izan zuela eta pentsatzen genuen udaletxe horren aldetik erabateko soluzioa emango zitzaiola.

Oker ez banago udaletxe hortako, hirigintzako eta osasuneko bi batzordeak nahiko gogoz hartu zuten txakurtegi honen egoera, ahal den biderik zuzenean ipintzeko.

Baina nik ez dakit zer arraio, eta tamalez, hemen segitzen du bere egoera nazkagarri berdinean eta ondorioz hemen jarraitzen dugu etxe horretatik sortzen diren ezerosotasun guztiak jasaten.

Jakin nahi nuke, batzorde horien arduradunek edo nik ez dakit nork, txakurtegi honek udaletxearekin dituen harremanak, osasun baldintza minimoak osatzen dituen ala ez. Eta ez bakarrik osasun baldintzak, jakin nahi nuke baita ere, lege-hiritar minimoak osatzen dituen ala ez.

Honekin esan nahi dut, udal edo probintziar albaiteruak bere ohizko txosten-agiria igorritakoaren aurrean zein erabakiak hartzen diren edo gutxienez zer pentsatzen den gai guzti honi buruz.

Zeren, nik, argi ikusten dut, eta ez nik bakarrik, horko agintariek ere, gaur egun txakurtegi hau

aurkitzen den egoeran ezin duela jarrai eta desagertzeko bidean ipini behar dela. (Ez baldin bada Villa Lolita-n aurkitzen diren txakur guztiak "Maria Cristina-ra" eramateko asmoa).

Une honetan, gai hau ez dut nahasi nahi udaletxean azken egun hauetan denoren dirua inbertitzeko dituen asmoarekin, baina txakurtegi honen inguruan bizi garenoi pentsa arazi egiten digu.

Gehiago ez luzatu arren, ez noa hemen azken hiru hilabete hauetan jasan ditugun eragozpenak aipatzera, eta aldezturik agiri honen bidez bakarrik lortu nahi dudana zera dela: Buruturik gabe dagoen gai hau gaurkotzea eta erabateko soluzioa eramatea.

Zuen erantzunaren zai eta edozein gauzarako prest dagoelarik, agurtzen dizue,



10 DIC. 1982 Luis H. Ralla

Altza, 1.982 Ko abenduaren 10.ean

LUIS M^a RALLA ARRUTI - N.A.N. 15.883.474

Anjelatxo-enea

ALTZA

DONOSTIA-17

